

zumaiia

2. zenbakia • 2009ko apirila

ZU
udalaldizkaria



Zumaiko Udala



Zentzumenak lantzen

Zumaiako Eguneko Zentroak hamahiru pertsona jasotzen ditu egunero; dependentziak dituzten adin nagusiko pertsoneri laguntzea du helburu zentroak.

aurkibidea

2 Udal zerbitzuak: **Algorri**

3 Inkesta

4 Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Zentzumenak lantzen egunero

9 Santelmoak

10 Zumaia Lantzen/Alondegia

11 Argiteriaren azterketa

12 Narruondoko pasealekua

13 Alderdien iritzia

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaia Udal

Egilea: Pentsa bulegoa

Argazkiak: Zumaia Udal eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 4.500 ale

L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

udal zerbitzua; Algorri

Juan Belmonte kalea, 21
Telefona: 943 14 31 00



Algorri Zumaia Natur Baliabideen Interpretazio Zentroak bizimodu iraunkorra sustatu nahi du eta horretarako, inguruko baliabide naturalak ezagutaraztea da lehentasuna.

Zumaiako ekosistema naturalen inguruko eskaintza didaktikoa aurkezten die bisitariei. Horrez gain, ekologia eta geologia aldetik hain aberatsa den eta biotopo babestu izendatu berri duten eremura bisitak ere egiten dituzte Zumaia turismo eskaintza osatuz. Zentroak ikerketaren eta herritarren arteko zubi-lana ere egiten du, Zumaia duen altxor naturala gizarteratuz.

Urte osoan egongo da zabalik zentroa, baita igande eta jaiegunetan ere.

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: 9:00etatik 13:30era eta 16:00retatik 18:30era.

Larunbatetan: 10:00etatik 13:30era eta 16:00retatik 19:30era.

Igande eta jai egunetan: 10:00etatik 13:30era.

Astelehenetan: itxita.

Uda eta Aste Santuan:

Egunero zabalik 10:00etatik 13:30era eta 16:00retatik 19:30era.

265.210 euro kostatu zen iaz bide publikoen garbiketa lana egitea. Herritarren artean galdetu du Udalak iritziak jasotzeko.

El coste de la limpieza de la vía pública ascendió a 265.210 euros el año pasado. El Ayuntamiento quiere saber la opinión de los ciudadanos sobre esta cuestión

Kalea garbi edukitzeko nahikoa kontzientzia badugula uste al duzu?



Inazio Osa

Ez dut uste. Ni adibidez, San Juan egoitza inguruan bizi naiz eta hango plaza-txoaz zerri eginda egoten da askotan. Botila piloa egoten da hantxe bertan lurrean utzita. Ondo iruditzen zait gazteek ondo pasatzea eta nonbaiten elkartzeari, baina nahikoa izango zen poltsatxo bategan sortu duten zaborra zakarrontzira botako bazuten. Horretaz aparte, zakur kaka asko egoten da kaleetan, oro har.

Sería suficiente que cada uno recogiera en una bolsita la basura que produce.



Jesus Etxabe

Zumaia garbitasun alde-tik nahikoa ondo egoten dela uste dut. Hala ere, zakurrak dituztenek arduratsua jokatu beharko luketela iruditzen zait. Izan ere, zakur kaka jasotzeko edukiontzia badaude herriko guzti desberdinetan baina jendeak ez ditu erabiltzen. Puntanoeta aldean asko egoten da, baina Zumaian orokorrean ematen den arazoa da. Horren aurrean, zerbait egin beharko litzateke: isuna jarri...

Creo que los dueños de los perros tendrían que ser más cuidadosos.



Argi Agirrezabalaga

Ez dut uste nahikoa kontzientzia daukagunik. Badakigu norbait etorriko dela atzetik jasotzera eta errazegi botatzen ditugu zakurrak lurrera. Nik zakurra daukat eta beti jasotzen ditut bere hondakinak, baina zakur kaka organikoa denez, jende askok, bertan uzten du jaso gabe. Ez dut uste Udalak kontu honen inguruan neurri gehiago hartu beharko lukeenik, hori familiaren kontua da, heziketa kontua.

El Ayuntamiento no tendría que tomar más medidas. Es cuestión de educación.



Elisabet Espilla

Badaukagu baina ez gehiegi. Ni saiatzen naiz zerbait kalean botata ikusten dudanean jasotzen. Aurrekoan, adibidez, zakarrontzi baten alboko bankuan bi jogurt pote ikusi nituen utzita, zakarrontzira bota gabe. Paolbidean eta Gernika parkean, berriz, zakur kaka asko egoten da. Batzuk ikusten dituzu jasotzen baina askok hantxe lagatzen dute. Ez da asko kostatzen eta denok zerbait egin beharra daukagula uste dut.

No cuesta mucho y creo que tendríamos que poner más de nuestra parte.

udala



a maitu berri da Korrika 16 euskararen aldeko festa. Zumaiarrok ere festa horretaz gozatu ahal izan genuen herriko kaleetan korrika eginez. Zumaiako Udalean ere, urrats horiek eguneroko lanean egin nahi ditugu. Horretarako onartu genuen joan den azaroan euskararen ordenantza. Ildo horretatik, eta akatsetatik ikasiz, Udalak elkarlanerako prestutasuna erakutsi nahi die euskalgintzako elkartei. Udalak ere ongi etorria eman nahi baitie euskaraz bizi nahi dugunon herrira hurbiltzen diren guztiei.

La edición del Korrika 16 ha llegado a su meta. Los zumaiarros también hemos disfrutado de esta fiesta. Igualmente, el Ayuntamiento de Zumaiá quiere exponer su voluntad de caminar a favor del euskera día a día. Para eso aprobamos la nueva ordenanza sobre el euskera. Aprendiendo de los errores, queremos reafirmar nuestra voluntad de seguir colaborando con asociaciones que trabajen en este ámbito. Ya que el Ayuntamiento también quiere dar la bienvenida a todas las personas que se acerquen al mundo del euskera.

Fototeka



nolakoa zen garai bateko Zumaiara? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaiako argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa www.euskomedia.org helbidean dago ikusgai.



Maite Suarez Losadak utzitako argazkia

Suarez Losada familia ageri da, 1950eko sanpedrotan ateratako argazkia da.

Familia hori Bilbokoa zen, eta Bidabe Azpia etxean pasatzen zuen uda parte.

Tartean, Carmen Lanzagorta (Gracian Alberdi, orduko alkatearen emaztea) eta bere bikiak.

Txaluparen izena, 'virgen de begoña' zen.

La familia Suárez Losada, en las fiestas de Sampedro de 1950.



Maite Suarez Losadak utzitako argazkia

1920 urte inguruko argazkia da.

Zuloaga etxea garai hartan intelektual ugariren biltokia izan zen.

Argazki honetan, udako mozerro festa ageri da. Tartean, ohiko bisitaria zen Ortega y Gasset.

Fiesta de disfraces en la Casa Zuloaga. Entre otros el visitante habitual Ortega y Gasset.

Higikortasunerako zubi mugikorra



Herritarren zubi gustukoena:

- 1- Mari (97 boto)
- 2- Xistera (86 boto)
- 3- Portuari bira berri ba (65 boto)

Zubia egitearen alde:

Bai: 380 boto.
Ez: 185 boto.
Ez daki: 3 boto.

Zubiak trafikoaren arazoa konpontzen lagunduko al du?

Bai: 323
Ez: 194 boto.



Zubi mugikorraren gaia hizpide izaten ari da azkenaldian zumaiarren ahotan. Udala kirol portuaren eta moilaren artean zubi mugikorra egitea aztertzen ari da. Egitasmoak lotura du Sarauneko aparkalekua erdigunearekin lotzeko asmoarekin. Horretarako egin dute zubia egiteko ideia desberdinen lehiaketa eta 22 proposamen jaso dira. Lehiaketako epaimahaiak proiektuak baloratu ditu dagoeneko: Mari, Enkidu eta Ontzi izan dira, hurrenez hurren, lehiaketara aurkeztu diren lehen hiru proiektu hoberenak.

Ebazpen horretara iristeko, bi irizpide nagusi hartu ditu kontuan epaimahaiak: batetik, proposamenaren arkitektura eta egokitasuna baloratu dira, eta bestetik, aurkeztutako proiektuaren irtenbide teknikoa aztertu da. Hala, Mari izan da bi irizpideen arteko oreka hobekien betetzen duena. Orain, saria jasoko dute hiru proiektu hobereenek; lehenengoak, Mariren egileak, 5.000 euro jasoko ditu, bigarrenarenak 3.000 euro, eta hirugarrenengo postuan izendatu duten proiektuaren egileak 2.000 euro.

Herritarren iritzia jasotzeko erakusketa

Udalak, oraingoz, herritarren iritzia jaso eta aukera errealak aztertu nahi izan ditu. Horretarako jarri ziren ikusgai Alondegian ideia lehiaketara aurkeztu ziren 22 proposamenak, herritarrek ikus zituzten. Proposamenak ikusi eta beraien ustez egokiena den zubiaren alde botoa emateko aukera izan dute zumaiarrek. Hala, herritarren artean ere Mari izan da proiektu bozkatuena, 664 bototatik 97 jaso ditu.

Proiektu gustukoena bozkatzeaz gain, Udalak egitasmo honi buruzko iritzia ere eskatu die herritarrei, zubia egitearen alde edo kontra dauden, alegia. Erakusketan jasotako emaitzen arabera, 568 parte-hartzailetatik, 380 zubia egitearen alde agertu dira, aldiz, 185 kontra, eta 3k zalantzak dituzte.

Proposamenak, Sarauneko gunean aparkalekuak egitearekin eta herrian trafikoa arintzearekin du lotura. Hala, trafikoaren gaia ere jorratu zen Alonde-

giko erakusketan egin zen galdeketan.

Udalak proiektua bere osotasunean hausnartzeko lana du orain. Dena dela, Eusko Jaurlaritzako Portuetako Zuzendaritzarekin adostu beharko du egitasmoa, baldin eta zubia egitea erabakitzen bada.

el tema del puente móvil ha dado que hablar entre los zumaiarras. El Ayuntamiento ha realizado un concurso de ideas para analizar distintas alternativas que pudiesen unir la explanada de Saraune con el muelle. El jurado ya tiene su veredicto: entre las 22 propuestas presentadas, Mari, Enkidu y Ontzi han sido las más valoradas, sucesivamente.

Según los resultados de la exposición que se realizó en la Alhóndiga, Mari ha sido también la propuesta más votada entre los zumaiarras. 323 ciudadanos votaron a favor del proyecto; en cambio 194 votaron en contra.

Zentzumenak lantzen, egunero

Zumaiako Eguneko Zentroan eguneroko jarduerak balio berezia hartzen dute; zentzumenen estimulazioak berebiziko garrantzia du pertsona hauengan.

Las actividades cotidianas tienen un valor especial en el Centro de Día de Zumaia; se le da especial importancia a la estimulación de los sentidos.



Zumaiako Eguneko Zentroak hamahiru pertsona jasotzen ditu egunero, bere egoitzan. Dependentziak dituzten adin nagusiko pertsonen laguntzea du helburu zentroak baina baita horien familiei ere. Horregatik, familiekin etengabeko harremana mantentzen saiatzen dira.

Eneritz Acedo da zentroaren koordinatzailea eta gizarte langilea. Bere ustez, Eguneko Zentroak eskaintzen duen zerbitzuak abantaila nabarmenak ditu beste zerbitzu batzuekin alderatuta: “etxez etxeko zerbitzuan, esaterako, eskaria oso handia bada ere, kontua izan behar da zerbitzu horrek ez dituela pertsona horren egun guztiko beharrak asetzen; Eguneko Zentroak aldiz bai”. Acedoren arabera, Eguneko Zentroaren gainean uste okerra dago gizartearen, oro har: “zentzumenak ez dira etortzen denbora pasatze hutsera. Zentroak helburu batzuk baditu. Edadearekin memoria

galtzen joaten gara, baita gaitasun fisikoak ere, baina gaitasun horiek egunero landu eta estimulatu baditugu, ahalik eta epe luzeenean mantentzea ahalbidetuko dugu”. Hori egiten dute Eguneko Zentroan egunero, zentzumenak landu.

Denbora, konturatzerako pasatzen omen zaie Prexen Mujika, Angela Goikoetxea eta Aniceta Alkorta. Hirurak Eguneko Zentzora joaten dira astelehenetik ostiralera. Emakume gogorak dira hirurak; Mujikak 84 urte dauzka, Alkorta 86 eta Goikoetxeak mende oso bat egina du ia, aurtun beteko ditu 100 urte. Eguneko Zentroan “oso kontentua” dagoela dio Alkorta, hemen ikasi du pintatzen. Soinketa asko gustatzen zaiola dio, eta erregimenean omen dago.

Prexen Mujika ez zegoen oso konbentziturik Eguneko Zentzora lehen aldiz

el Centro de Día de Zumaia atiende a 13 personas diariamente. El Centro tiene como objetivo ayudar a personas mayores dependientes y de igual manera, pretende apoyar a sus allegados.

Según la coordinadora del Centro Eneritz Acedo, el Centro de Día posibilita acceder a unos servicios que de otra manera no pueden obtener: “el servicio de ayuda domiciliar por ejemplo, no satisface las necesidades que una persona mayor pueda tener durante todo el día. En cambio, el Centro de Día sí. Es muy importante la estimulación de los sentidos para estas personas. Con los años, perdemos la memoria o las capacidades físicas. Sin embargo, podemos prolongar esas facultades mediante el estímulo de los sentidos”.



agertu zenean. 15 eguneko probaldi bat eskatu zuen izena eman aurretik. “Hasieran ez nuen nahi hona etortzea, baina probaldia eta gero, gustatu zitzaidala iruditu zitzaidan eta horrela geratu nintzen”. Gauza polita da ikastea Mujikaren ustez eta zentroan ikastaro berri gehiago jarriko lituzkeela dio: makramea, tapeteak egiteko tailerra...

Goiko tabernako alaba, Zumaian emakume ezaguna dela dio Mujikak. Angela Goikoetxea aurten beteko ditu ehun urte eta zentroan apetitu hobereetakoa duena dela esaten dute alboan dituen emakumeek. Astelehenetik ostiralera bitartean joaten da Eguneko Zentrora eta asteburuak familiarekin igarotzen ditu, beste bi emakumeek bezala.

Eneritz Acedo zentroko koordinatzailearen arabera, “hasiera batean zentrora etortzeko beldurra bezala izaten dute. Gero, ordea, zentroak gauza asko eskaintzen dizkiela ikusten dute: sozializazioa, beste pertsonekin harreman berriak eraikitzea, zereginak izatea...”. Hori zentroan ezartzen zaizkien “aktibitateekin lortzen” dela dio.

Bi taldetan banatuta daude, konnitibitatearen arabera. Acedorentzat, pertsona hauentzako “oso garrantzitsua” da errutina bat edukitzea: “Garrantzitsua da aste osoko programa bat garatzea, bestela erreferentziak galtzen dituztelako. Hala, taldeak beti berdinak izaten dira, ordu berdinean egiten dituzte akti-

bitateak, komunera ere normalean beti ordu berdinean joaten dira...”. Ostiral arratsaldero bingoan jolasten dute eta bingoak “egundoko arrakasta” izaten omen du. Asteburuak gehiago izaten da aisialdirako. Bost pertsonak hartzen dute parte momentu hauetan asteburuetako dinamikan, eta zazpi lagunentzako lekua dago oraindik.

Familiei, hasiera batean, beraien senitartekoak Eguneko Zentrora ekarri ta “kulpabilitate sententzia” geratzen zaiela dio Acedok. “Orain arteko modeloaren ondorioa da hori hein handi batean. Gure zaharrak etxean zaindu behar ditugu hil arte eta gure ardura da hori, gainera. Orain hasi dira euren familiakoak Eguneko Zentroetara-eta eramaten”. Horri lotuta, “daukagun bizitza estiloak ere eragina” duela horretan dio zentroko koordinatzaileak: “Adibidez, alzheimerra duen pertsona batek eguneroko behar du estimulazioa. Oso garrantzitsua da pertsona horientzako memoria lantzea eta eguneroko estimulazioa”. Horren aurrean, eta “daukagun bizimoduaren ondorioz, askotan ezin izaten dugu gure familiako pertsonarekin estimulazio horretarako denbora hartu. Eguneko Zentroak, berriz, horretarako aukera eskaintzen du”.

Udaberriari lotutako apaintekak egiten ari dira orain Eguneko Zentroan, Alkorta, Mujika, Goikoetxea eta gainontzeakoak ere udaberriko loreen gisara erne daitezten.

Eguneko Zentroko zerbitzuez baliatzeko:

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduradunekin harremanetan jarri (943 862200). Handik, pertsona nagusi horrek eta bere familiak dituen beharren arabera, eta mendekotasun balorazioa egin ondoren, deribazioa egingo dute: etxeko zerbitzua eskaini, Eguneko Zentroan izena eman, teleasistentzia zerbitzua eskaini... Gero, Foru Aldunditik espedientea iristen da Eguneko Zentroko arduradunengana. Zentroko gizarte langilea familiarekin harremanetan jartzen da eta lehenengo zita adosten dute.

angela Goikoetxea, Prexen Mujika y Aniceta Alkorta acuden todos los días al Centro de Día. Alkorta señala que está “muy contenta” en el Centro de Día. Aquí ha aprendido a pintar y le gusta mucho hacer gimnasia. Mujika, en cambio, no era muy partidaria de acudir al Centro, pero después del periodo de prueba que pidió, dedujo que no estaba tan mal como ella pensaba. Goikoetxea por su parte pronto cumplirá 100 años acompañada de sus amigos/os del Centro.

Babestuta baina independente

Eguneko Zentroaren gainean daude pertsona autonomoentzako erabilera anitzeko apartamentuak. Udalak duela lau urte jarri zuen abian zerbitzu hau herritarrek erabil zezaten. Bertan bizitzeko baldintzak honakoak dira: 60 urtetik gorako pertsona autonomoa izatea, laguntza gutxi edo gainbegiratze txikia behar izatea, bizikidetzak edo bakardade arazoak izatea eta etxebizitza duina lortzeko beharra izatea.



Sagrario Leiza

“Babestuta sentitzen gara, baina aldi berean, oso bizimodu independentea egiten dugu hemen”.



Francisca Bulman

“Ez nazatela ezerentik hemendik atera. Oso gustura nago apartamentuetan bizitzen”.

Apartamentu hauetako bizilagunak dira Sagrario Leiza eta Francisca Bulman. Leiza Arroa Behekoa da izatez baina aspalditik bizi da Zumaian. Bere bizilaguna da Francisca Bulman. Nafarra da sortzez Bulman baina hogeita hamar urtetik gora daramatza Zumaian bizitzen. Bi emakumeek “oso gustura” daudela diote: “ez nazatela ezerengatik hemendik atera”, dio Bulmanek.

Zerbitzu honen helburua da, 60 urtetik gorako pertsonentzako etxebizitzak eskaini eta behar dutenean arreta eskaintzea. Pili Alberdi Zumaiako Udaleko Gizarte Langilearen arabera, “komunitate inguru egoki batean bizitzeko aukera eman nahi zaie pertsona horiei. Azken batean, aurreko etxebizitzetan zituzten baldintzak hobetzea da zerbitzu honen asmoa”.

Eneritz Acedo zerbitzu honen enpresa esleipenduneko langilea da eta Eguneko Zentroaren ardura izateaz gain, apartamentu hauen koordinatzailea ere bada. Acedok dioenez, “autonomoak dira etxebizitza hauetan bizi diren pertsonak, baina aldi berean, ez daude bakarrik, babestuta daude. Ni hemen ibiltzen naiz egunero eta gizarte zerbitzuetakoak ere eraikin honetan bertan daude”. Horrez gain, 24 orduz euren esanera dagoen telefono mugikor bat ere badu apartamentuetako koordinatzaileak, edozein premia sortuta ere.

Denera, 16 etxebizitza eskaintzen ditu zerbitzu honek: 14, pertsona nagusientzako dira; gainontzeko bi etxebizitzak, herrian sortu daitezkeen larrialdi egoerei erantzuteko prestatuta daude. Momentu honetan, 4 etxebizitza hutsik daude, bizilagun berrien zain. Hiru eratako apartamentuak eskaintzen dira: pertsona bakarrentzakoak, bi pertsonentzakoak, eta gehienez lau lagunentzakoak -larrialdietarako dituzte gordeta horiek-.

Apartamentuko garbiketa norberak egiten badu ere, etxebizitzan mantentze lanez enpresa esleipenduna arduratzen da. Labadora izorratu bazaie, pertsiana



aldatu edo bestelako mantenu lanez apartamentuen koordinatzaileak arduratzen dira. Bizilagunek apartamentuaren alokairua ordaintzen dute, baina ez daukate argia, ura eta antzerako gastuak ordaindu beharrik.

El objetivo de los apartamentos tutelados personas mayores de 60 años, es facilitar una vivienda adecuada a aquellas personas que la necesitan y dedicarles un trato cuidadoso día a día. Sagrario Leiza y Francisca Bulman son vecinas de estos apartamentos. Las dos aseguran que están “muy contentas” habitando en estas casas, “que no me quiten esto por nada del mundo”, dice Bulman.

En total, se ofrecen 16 viviendas en alquiler, y en este momento, 5 se encuentran vacías, a la espera de nuevos inquilinos. Eneritz Acedo, también se encarga del servicio de los apartamentos tutelados. Según dice, “las personas que viven en estos apartamentos, son autónomas, pero al mismo tiempo están protegidas.

Las personas autónomas residentes de Zumaia con más de 60 años podrán solicitar más información acerca de este servicio acudiendo a las oficinas de los Servicios Sociales del Ayuntamiento.

Alkandora urdinen olatua iristear da



“Parte-hartu eta festak errespetuz bizitzera gonbidatu nahi zaituztegu”.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

Alkatea

Iristear dira aurtengo santelmoak. Aurten ere, herriko festen giroan murgildu, eta ederki pasatzeko aukera izango dugu zumaiarrok. Apirilaren 17tik 26ra bitartean, alkandora urdinen festa izango da protagonista Zumaian.

Udal aldizkariarekin batera bidali dizuegu aurtengo santelmoetako programa. Konturatuko zineten aurtengo programa apalagoa atera dugula. Irizpide ekologiko eta ekonomikoak hartu ditugu kontuan erabakia hartzerako orduan. Sostengarritasunetik, ordea, praktikotasuna

bilatu nahi izan du Udalak formatu berri honekin. Zuen gustukoa izango dela espero dugu.

Udalaren aldetik, festetako ekimenetan parte-hartu eta festak errespetuz bizitzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Besterik gabe, ondo pasa santelmuak!

Las fiestas de San Telmo están por llegar. El Ayuntamiento de Zumaia desea que todos los zumaiarros participen y disfruten de las fiestas con respeto y honestidad.



“Gazteak animatuko nituzke horrelako ekintzetan parte-hartzera. Santelmoetako danborrada gure kulturaren parte da eta tristea izango zen ohitura hori galtzea”.

Maddi Zarautz

danborradako zuzendari nagusia

Herritarrek herritarrei eskainitako festa: danborrada!

Aurtengo santelmoetan ere ez dira faltako danbor hotsak. Apirilaren 19an, goizean izango da haurren danborrada eta egun bereko iluntzean ospatuko dute helduen danborrada. Aurten, berrikuntzak izango dira helduen danborradan: Maddi Zarautz zumaiar gaztea lehen aldiz aterako da danborradako zuzendari nagusi bezala.

Txikitatik parte hartu izan du Zarautzek santelmoetako danborradan. Haurren danborradan ateratzen zen txikia zela, eta helduenera noiz pasako zain egoten omen zen. Orain, bera izango da danborradako

zuzendari nagusia eta horrek “urduritasun punttu bat” eragiten diola aitortu du. Aurtengo danborradarako izena emandakoen kopuruak behera egin duela-eta, “kezkatuta” ere badagoela gaineratu du: “gazteak animatuko nituzke horrelako ekintzetan parte-hartzera. Santelmoetako danborrada gure kulturaren parte da eta tristea izango zen ohitura hori galtzea”.

Aurten ere, usadioei heldu egingo zaie eta ederki pasako dute zumaiarrek danborren festan.

Maddi Zarautz será la nueva directora de la danborrada. Zarautz quiere animar a los jóvenes para que participen en las fiestas, “ya que son parte de nuestra cultura”.



“Iazkoa, aurreneko urtea izateko, zoragarri atera zen. Aurten ere, herritarrak zaldi karrerak egingo ote diren galdezka ikusteak, poza eragiten digu antolatzaileoi”

Juanito Aginagalde

zaldi karreretako antolatzailea eta parte-hartzailea

Zaldien eta zaldizkoen ikuskizuna

Iazko santelmoetan izan ziren lehen aldiz Zumaian zaldi karrerak. Zaldizkoak gidari zituztela, hamaika zaldik parte hartu zuten orduan. Aurten, iaz jarritako marka hautsi egingo dute; 20 zaldi aterako dira. Juanito Aginagalde aritu zen iazko lasterketa antolatzen, eta aurtengoan ere horretan aritu da. Gainera, lasterketan parte hartu zuen iaz, eta orain ere aterako da. Aginagalderen hitzetan, “iazkoa, aurreneko urtea izateko, zoragarri atera zen”.

Apirilaren 18an, larunbatean egingo da laster-

keta Itzurun hondartzan eta 17:00etan hasiko da. Ikusleei begira, Aginagaldek uste du ordu hori “egokiagoa” dela aurreko urtekoa baino. Ilusio handiarekin ageri da antolatzailea: “aurten ere, herritarrak zaldi karrerak egingo ote diren galdezka ikusteak, poza eragiten digu antolatzaileoi”.

El 18 de abril, los caballos y sus jinetes cobrarán protagonismo en la playa de Itzurun. Juanito Aginagalde ha sido uno de los promotores de la carrera de caballos. Aginagalde se alegra cuando percibe a la gente “expectante al evento”. El también participará en la carrera.

Zumaia Lantzenek kudeaketa eredu berria izango du

Hiru langile kontratatuko dira erakundea gestionatzeko.

Zumaia Lantzen erakundeak kudeaketa eredu berria izango du aurrerantzean. Hala adostu zuen erakunde horren Administrazio Kontseiluak otsailean egin zuen ezohiko bilkuran.

Udalaren menpeko organo hau ez du jada enpresa pribatu batek gestionatuko eta hori ahalbidetuko duen lehenengo urratsa eman du Zumaia Lantzeneko Administrazio Kontseiluak: erakundea kudeatzeko hiru langile kontratatuko prozesua abian da. Gerente batek -arkitekto edo ingeniari profilarekin-, finantza arduradun batek eta administrari batek kudeatuko dute laster Zumaia Lantzen.

Onurak herritarrentzako

Enpresa pribatu batek kudeatu beharrean, zuzeneko langileek gestionatzeak, onurak ekarriko dituela uste du Udalaren menpeko erakundearen

Administrazio Kontseiluak.

1991an sortu zuen Udalak Zumaia Lantzen. Sortu eta urtebete geroago, enpresa pribatu batekin hitzarmena sinatu zuen Udalaren menpeko organo hori kudeatzeko. Urte hartatik gaur egunera arte, hitzarmen hura luzatuz joan da eta ez da egin lehiaketa publikorik.

Horren aurrean, orain eman diren urratsek onurak ekarriko dituztelakoan dago erakunde horren Administrazio Kontseilua. Onura ekonomikoak izango dira, batetik. Izan ere, Zumaia Lantzenen gestioarengatik ordaintzen ziren kopuruak nabarmen jaitsiko dira.

Onura ekonomikoaz gain, herritarrei eskainiko zaien arreta ere hobea izango da: "hirugarren mailako hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko dute kontratatuko diren hiru langileek, eta

euskarazko zerbitzua bermatua izango dute herritarrek. Horretaz aparte, Zumaia Lantzenen bulegoak udaletxean bertan egokituko dituzte eta ez herritik kanpo, orain arte bezala".

La sociedad pública Zumaia Lantzen dispondrá de nuevo modelo de gerencia acorde con las decisiones tomadas en el Consejo Administrativo de la misma entidad a finales de febrero. En adelante, la sociedad no será gestionada por una empresa privada; al contrario, Zumaia Lantzen contratará de forma directa tres personas para ejercer dicha labor: un/a administrativo/a, un/a responsable del sector financiero y un/a gerente.

Con esta decisión, se reducen notablemente los gastos, y se posibilita que las oficinas de la entidad estén en el Ayuntamiento.

Alondegiko proiektua ez da geldituko

Zumaia Alondegi Zaharrea Kultur Etxea egiteko proiektuak gora-beherak izan ditu azken asteotan. Bere garaian, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak helegitea jarri zien 2006ko abenduan lehiaketa publikorako argitaratu ziren oinarriei eta epaitegiak auzi-bide onartu zituen. Arkitektoen Elkargoa ez zegoen ados esleitzeko oinarrietan jasota zeuden irizpideekin. Orain gutxi jakin da ebazpena; epaileak arrazoia eman dio elkargoari.

Udalak sortu berri den arazoari irtenbidea bilatzeko lehen urratsak eman ditu eta

Arkitektoen Elkargoarekin adostasunera iritsi da. Bere garaian, proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza, biak lehiaketa berdinean esleitu ziren. Hortaz, helegiteak bi jarduera horiei eragiten badie ere, proiektua jada idatzita eta Udalaren esku dagoenez, horrekin aurrera jarraitzeko modua aurkitu dute. Aldiz, obra zuzendaritza, oraindik exekutatu gabe dagoenez, berriro esleitu du Udalak. Lehiaketa berria Arkitektoen Elkargoarekin adostuko du Udalak eta oinarriei buruz elkargoaren oniritzia jaso ostean esleitu du obra zuzendaritza.

Epea luzatuko bada ere, Alondegiko

proiektuak aurrera segituko du hartutako neurri horiei esker.

respecto al proyecto de la Alhómdiga, el Colegio de Arquitectos del País Vasco presentó un recurso en el año 2006 contra los pliegos presentados a concurso público en diciembre del mismo año. Ahora el Tribunal ha fallado a favor del contencioso. El Ayuntamiento ya ha llegado a un acuerdo con el colegio y el proyecto seguirá adelante.

Argiteria publikoa

Udalak argi kutsaduraren inguruko azterketa egin du.



Zumaia Udalak eraginkortasun energetikoaren eta argi kutsaduraren inguruko azterketa egin berri du. Horren harira, herriko argi-puntu desberdinak aztertu dira hiru helburu nagusiri erantzuteko: batetik, Zumaian dauden farol moten inbentarioa egin ahal izan da; bestetik, farol horien artean kutsagarriak zein diren eta zein ez aztertu da; eta hirugarrenik, argi mailak Europako araudietara egokitzen hasteko abiapuntua finkatu da.

Orain, azterketa horretan oinarrituta, argiteria publikoa arautzeko udal ordenantza bat osatzea izango da helburu nagusia. Legedi horrek, urbanizazio berrietan egin beharreko argi instalazioaren azalpenak argituko ditu, eta era berean, argi iturrien behararen arabera zonakatzea egingo da. Alegia, kale bati egiten zaion erabilpenaren arabera, behar duen argi kantitatea izendatuko zaio.

Horrekin guztiarekin, hiru jomuga nagusitara heldu nahi du Udalak: batetik, argiaren kontsumoa gutxitzea, bestetik, argi kutsadura ahal den neurrian ekiditea, eta hirugarrenik, herritarrek argiteriaren erabilpenean kontzientzia hartzea.

Argiaren kontsumoa gutxitu nahi den arren, horrek ez du esan nahi segurtasunean atzera egingo denik. Segurtasun irizpideak kontuan hartuta egingo dira sailkatzeak eta kontsumoa gutxitzeko saiakerak. Gehienbat zerura igortzen den argi kutsadura eragin nahi du Udalak. Zumaian, natura, paisaia eta geologia intereseko lurzoru asko dago. Airera botatzen den argiak ekosistema aldatu egiten du, eta gainera, argia zerura alferrik igortzen da.

Argiteria publikoaren ordenantzak Zumaia behar bezala argitzen lagunduko du, naturarekiko errespetuan.

el Ayuntamiento de Zumaia ha elaborado un análisis para medir la eficiencia energética y la contaminación lumínica procedentes del alumbrado público. El estudio ha tenido tres objetivos: por un lado, se ha podido completar un inventario sobre los tipos de farolas que hay en Zumaia; por otro lado, se han analizado cuales eran las farolas contaminantes y cuales no; y por último, se ha fijado un punto de partida para comenzar a adecuar los niveles de iluminación a la normativa Europea.

Ahora, y basándose en ese estudio, el objetivo principal para el Ayuntamiento será completar una ordenanza para regular el alumbrado público.

oharra

Esleitu dira behin-behinean, Espainiako Gobernuak emandako diru-laguntzekin aurrera eramango diren zazpi proiektuak egiteko lanak.

motxian

2009rako udal aurrekontuak onartuta

Otsailaren 26ko plenoan onartu ziren behin-behinean 2009rako udal aurrekontuak. 15 egun geroago, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta egon ostean, behin betiko onarpena jaso zuten. Aurtengo aurrekontuek, besteak beste, herritarren parte-hartzea eta auzoetako proiektuak izan dituzte oinarri. Horretaz aparte, Jadarreko lanek eta Alondegiko proiektuak ere leku nabarmena izan dute inbertsioen atalean. Udalak, gainera, 14 lanpostu berri sortuko ditu aurrekontuen inguruko datuak ikusgai daude zumaia.net Udalaren webgunean.

El pleno del 26 de febrero aprobó los presupuestos para el 2009. Entre las inversiones destacan los trabajos de Jadarre y el proyecto de la Alhóndiga.

Todos los datos se pueden consultar en la página web del Ayuntamiento.

Errenta aitorpena euskaraz

Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez, eguneratuta dago 2008ko errenta aitorpena euskaraz egiteko argibideak jasotzen dituen dokumentua. Euskara Zerbitzuak, errenta aitorpenean euskara erabiltzeko dauden aukeren berri eman eta Zumaian non lagunduko dioten argitzen die herritarrei. Informazio gehiago, sail horrek udaletxean dituen bulegoetara joz edo Udalaren webgunean begiratu eskuratu daiteke.

Narruondora oinez edo bizikletaz



narruondo auzoko bizilagunen eta oro har, zumaiarren mugikortasunaren onurarako proiektu bat lantzen ari da Zumaiako Udala. Narruondo auzoa Zumaiako herri-gunearekin lotuko duten oinezkoentzako pasabidea eta horrekin batera bigorria egiteko proiektua aurrera doa.

Aurtengo urtea amaitzerako ekingo zaie lanei eta bi fasetan banatuko dituzte lan horiek. Lehenengo fasean, Jadarre auzotik hasi eta Txiki Erdiko biribilgune-rainoko zatia egingo dute. 3 metro eta erdiko pasabidea izango da gutxi gorabehera: bizikletentzako erraiak 2 metro


izango ditu; oinezkoena aldakorra da ibilbidean zehar, baina toki estuenean 1,5 metroko zabalera izango du. Lan hauekin, azpiegituren sarea Narruondo auzoraino luzatu nahi du Udalak.

Narruondoko proiektuaren bigarren faseak hartuko du Txiki Erdiko biribilgune-tik Narruondo auzorainoko zatia. Eremu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren bigorrien planean sartuta dago. Urretxutik hasi eta Zumaiarainoko ibilbidea egitea aurreikusten du Aldundiak. Narruondoko bigarren fase hori egitearen ardura, beraz, Aldundiak berak izatea adostu dute bi administrazioek. Aurre-

neko fasea bukatu ostean ekingo zaie bigarren fasea egiteko lanei.

“Kale izaera” eman nahi zaio N-634aren zati honi

Bidegorria eta oinezkoentzako pasea-lekua egingo diren errepidea, alegia, N-634a, Diputazioaren jabetzakoa da. Lehen, errepide horretatik bideratzen zen trafiko guztia. Orain, bariante berria eginda dagoenez, Zumaiako Udalak “kale izaera gehiago” eman nahi dio Narruondotik herrigunera datorren errepide zati honi. Horretarako jabetza transferentzia eskaria igorri dio Udalak Diputazioari eta laster jakingo da erantzuna.



el proyecto para unir el barrio Narruondo con el centro sigue su camino. El Ayuntamiento pretende comenzar los trabajos de adecuación de un paso para peatones este mismo año. Junto con el paso para peatones, también realizarán una vía ciclista, mejorando así los medios para la movilidad ciudadana.

El proyecto constará de dos fases: en la primera, se ejecutará el tramo que va desde el barrio Jadarre

hasta la rotonda de Txiki-Erdi; y en la segunda se finalizará la vía en su conjunto, realizando el trayecto desde Txiki-Erdi hasta Narruondo.

Con los trabajos de adecuación definidos, y finalizados los trabajos de la variante, el Ayuntamiento quiere caracterizar este tramo de la N-634 como calle del núcleo urbano. Para ello, el Ayuntamiento ya tiene formalizada la petición de transferencia de posesión a la Diputación.



eskerrik asko, zumaiaarrak!

Azken hauteskundeetan EAJren alde eta Ibarretxe Lehendakariaren alde eman dituzuen 1704 botoengatik. EAJ-PNV izan da garaile Zumaian ere, Euskadiko Erkidegoko udalerrri gehien-gehienetan gertatu den moduan.

Hauek izan dira emaitzak:

EAJ-PNV: 1704	PSE: 982
ARALAR: 509	EA: 445
PP: 189	EB: 132
UpyD: 26	Baliogabeak (Ezker Abertzalea): 658

EAJren udal-taldea osatzen dugunok eskerrik benetakoena adierazi nahi dizuegu udal aldizkari honek eskaintzen digun txokoa horretarako erabiliz. Beste behin ere zumaiaarrek ez ezik euskal hiritargoak ere bere konfiantza adierazi diolako Alderdiari eta Ibarretxe Lehendakariari.

Egia da hauteskundeak galdu dituztenak elkarren arteko konponketa bila dabilzala, aspaldiko estrategiari jarraiki, 2001-a geroztik (Alderdien Legea medio) buruan izan duten Estatu Estrategia, abertzalea ez den Lehendakaria lortzea alegia, euskaldunoi ezarri nahian. Eta lortuko dute, Patxi López Euskadiko Lehendakari izendatua izango da Legebiltzarrean PPK emandako botoekin. 'Frentismoaren' aurka omen dagoen benetako 'frontearen' botoez baliatuz, Abertzaletasunaren gehiengoari muzin eginez 'konstituzionalistek' aginduko dute Euskadin.

Zertarako aginduko dute? Ekonomiari dagozkion neurriak Espainian urteetan zehar hartutakoen antzerakoak izan daitezen?. Euskararen hedapena murrizteko?. Hezkuntza sistema, EITB edo Barne Saila interes 'konstituzionalisten' neurriira moldatzeko? Antza denez, horiek dira PSE eta PPren arteko konpromisoa oinarritzen duten zimenduak. Guztia Herri honetako borondatearen gehiengo zabal baten aurka.

Zumaian, bestalde, ohituta gaude hauteskundeak galdu dituztenen eskutik gobernatuak izatera. Orain Euskadin PSEk eta PPK egingo dutena egin zuten ia bi urte badirela Zumaian EAK eta ANVek: irabazlea, EAJ-PNV, oposiziora bidali.

Zertarako? Aldaketaren beharraren aitzakian, orain artean behintzat, herritar guztion alde ezer gutxi egiteko.

Hala ere, bai Zumaian zein Euskadin, oposiziotik bada ere, EAJ-PNVko ordezkariok herriaren eta herritarren alde lanean jarraituko dugu.



ezker abertzalea

Iehenik eta behin, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu martxoaren 1eko hauteskundeetan D3M botatu zuten 658 zumaiaarrei. Boto horiek izugarritzko balioa daukate kanpaina nola joan zen ikusita: atxiloketa eta kartzelaratzek, alderdiak legez kanpo uztea, debekuak, pertsekuzioa, komunikabide publiko eta pribatuetan boikotatuak eta baztertuak... Guztiei gure eskerrik beroenak, hauteskunde lotsagarri eta ez-demokratiko hauetan bat egin dutelako Ezker Abertzalearen deiarekin.

Udaleko jardunari helduta, 2009ko aurrekontuak onartu berri ditugu, aurtengoan herritarren parte hartze zuzenagoarekin, gainera. laz hasitako bidetik jarraitu eta udal programako edukia lantzen jarraituko dugu, zintzo. Zintzotasuna aipatu dugunez, ezin isilik utzi batzuen jarrera lotsagarria: bazterrak nahastu eta gezurrak zabaltzen, zumaiaarrei beldurra sartu nahian ari dira, aurrekontuen edukien inguruan. Horren adibide ugari dauzkagu: Zumaiaiko Babes Ofizialeko Etxeen zozketan Euskal Autonomia Erkidegoko edozeinek izango omen du parte hartzeko aukera; frontoi berria ez omen da egiten Gobernu Taldearen gaitasun ezagatik; Alondegia berritzeagatik 600.000 euro gehiago ordainduko omen dugu; haur eskola Bidasoa kalean jartzeko proiektua eginda zeukatela; politikarien soldata % 9 igo dela... Gezurra gezurraren gainean. Gure lana dela eta, prest gaude kritikak entzuteko eta onartzeko, sujerentziak entzuteko, baina onartezina iruditzen zaigu PNVk dabilkien jarrera, gezurretan eta herritarrek beldurtu nahian.

Udalak azkenaldian hartutako erabakietatik, bereziki azpimarratu nahi dugu Zumaia Lantzenen gestio eredu aldatu egingo dela. Agur esango diogu orain arteko kudeaketa ereduari eta hemendik aurrera Udalak estuago gestionatuko du sozietatea.

Bukatzeko, apirilaren 12an Aberri Eguna ospatuko dugu. Hori dela eta, Nazio Eztatanda Guneak dei berezia egin du Aberri Egun bateratua ospatzeko. Aurreko urteetan bezala, aurtun ere ospakizunen ardatza Irun eta Hendaia arteko martxa nazionala izango da, goizeko 11:30ean Irungo Ficobatik abiatuko dena. Zumaiaiko Ezker Abertzaleak bat egiten du deialdi horrekin eta dei egiten die zumaiaarrei parte hartzeko eta egun horretan Euskal Herriaren aldeko ikurrak jartzeko, bereziki ikurrinak, etxeko balkoietan, leihoetan, kaleetan, nazio bat garela erakusteko.

alderdien iritziak



Zer egin aparkaleku gabeziarekin? Zer egin herri barruko trafikoaren hazkundearekin? Nola uztartu oinezkoentzako eta trafikoarentzako guneak herrian?

Galdera horiek, zein horietatik eratorritako beste batzuk, uste baino erantzun zailagoa daukate eta hausnarketarako bidea zabaltzen dute.

Azken 10 urteetan ibilgailuen kopurua 2.552tik 4.035ra pasa da. Zubi txikitik Paolbide alderako herriaren zabalkundeak ordea, berdintsua jarraitzen du izaten. Ezberdintasun batekin: Ardantzabide eta Amaia plazako guneetan etxebizitza gehiago egin dira, eta horrek kotxe zein trafiko igoera ekarriko du. Ohiturari dagokienez, herritarrok ibilgailuarekiko dugun dependentsia handia da eta aldiz, herriko kaleetan oinez lasai ibiltzea gustuko dugu, batez ere, haur edo adin nagusiko pertsonetaz hitz egiten ari bagara.

Zer egin? Arazoa arintzen lagunduko duten neurriak hartu behar dira. Bidegorriak sustatu beharra dauka. Horren ildotik, bizikletak maileguan emateko aukera martxan jarriko du Udalak aurten, edo eta autobus zerbitzu publiko bat ezarriko dugu urtea bukatu baino lehen, herriko puntu ezberdinak lotuz.

Sarauneko zabalgunea eta Txomin Agirre kaia lotuko dituen zubi mugikorraren ideia, eztabaida honekin bete-betean dator. Zubi horren egikaritzeak zera ekarriko luke: bertan aparkatzen dutenen trafikoa herri barruan ekidingo luke, herri gunetik hurre aparkatzeko tokia izango litzateke, eta azkenik, herri barruan oinezko zein ibilgailuen guneak hobekiago erregulatzeko neurriak hartzea ahalbidetuko luke.

Eztabaida hor dago eta hori da garrantzitsua, zumaia-rron artean ahalik eta erantzun egoki eta hausnartuena ematea, dugun arazoari bizkarra eman gabe. Hitza denona da eta orain eztabaidatzeko garaia da.



Otsailean ospatu genuen osoko bilkuran Ezker Batua eta Aralarrek osatzen dugun koalizioak 2009. urterako aurrekontuak babestu genituen.

Aurrekontu hauek babestearen arrazoirik garrantzitsua izan zen udal gobernuak Zumaia Lantzen kudeatzeko irizpideak aldatu izatea, izan ere, gobernu honek Zumaia Lantzen enpresa pribatu batek kudeatu zezala proposatzen zuen. Baina proposamen honi egin genion oposizio tinkoaren aurrean, udal gobernuak enpresa pribatu bat kontratatatu beharrean zuzendari-gerente bat kontratatzea onartu zuen Zumaia Lantzenen kudeaketarako.

Azkenik esan, gure koaliziotik Zumaia Lantzen erabat desagertzea proposatu genuela baina elkarte honek dituen konpromisoak direla eta ezinezkoa da egun batetik bestera hau desagertzea.

En el pleno que celebramos en el mes de febrero nuestra coalición formada por Ezker –Batua y Aralar apoyamos el presupuesto municipal para el ejercicio 2009.

Una de las razones clave de este apoyo es el cambio de criterio del equipo de gobierno con respecto a la gestión de Zumaia Lantzen. “Nuestro grupo apostábamos directamente por la disolución de Zumaia Lantzen, pero al parecer los compromisos de esta sociedad municipal hace imposible que ésta se disuelva de la noche a la mañana”.

El equipo de gobierno propuso que fuera una empresa privada la que gestionara Zumaia Lantzen y ante nuestra radical oposición han accedido a la contratación de un gerente y no de una empresa. Esto nos parece un paso firme y decisivo a la disolución de esta sociedad urbanística que tan cara nos ha costado a los zumaiarras.



Ias pasadas elecciones del 1 de marzo situaron a este partido como segunda fuerza mas votada, desde estas líneas quisiéramos agradecer a los mas de 900 votantes su confianza en nosotros que contribuirán con los miles de votos más recibidos a conseguir un cambio político en Euskadi basado en la paz, por la libertad y la convivencia entre diferentes, gobernando para todos sin tener en cuenta su ideología política.

Sobre Zumaia Lantzen, celebrados dos consejos de administración expusimos con claridad nuestra postura, 1º si al mantenimiento de la misma, 2º gerencia externa pero con control municipal lo que conlleva no crear una estructura fija dentro del organigrama municipal, que en futuro fuera más caro el mantenimiento, que lo que ahora se cambia por caro con contratos de servicio, 3º planificación de futuro, proyectos o actuaciones que serán de su responsabilidad de forma flexible que permitan en todo momento adecuar esta responsabilidad a las necesidades del ayuntamiento.

En cuanto a los presupuestos aprobados para 2009, nuestro voto fue en contra de su aprobación por varias razones, pero sobre todo la contradicción que supone subir un porcentaje superior al 20% entre gastos de personal y gasto corriente, sin prácticamente gasto en inversión real, salvo la derivada de los proyectos financiados por el gobierno de Zapatero, con un déficit superior a los 2mill sin incluir el déficit de Zumaia Lantzen, cuando todos Gobierno Vasco, Diputación y Ayuntamientos, han reducido gasto corriente aproximadamente 10% y aumentado el gasto en inversión buscando crear empleo.

Sobre el proyecto de la Alondiga para nosotros no es entrar en polémica sino la nueva definición de los edificios públicos municipales, su actividad y con control municipal.

De todas formas nuestro deseo de unos San Telmos festivos y alegres para todos que nos hagan olvidarnos de la crisis aunque sea por un día.

EAJk 'Zumaia Zu' udal aldizkarian idatzitakoari erantzuna

Zumaiaiko Udalak argitaratu berri duen Zumaia Zu aldizkarian EAJk sinatutako idatziari erantzun beharrean aurkitu gara.

Ezin dugu erantzun gabe utzi Zumaia Zu aldizkarian alderdi bakoitzari eskainitako atalean EAJk komunikabideen inguruan esandakoa. Jatorrizkoan gaztelera hutsean, horrela dio idatziaren amaieran: "Zumaiaiko ANVk bere gobernukidearekin batera udalerrian argitaratzen diren idatzizko komunikabideen kontrola duela iruditzen zaigu". Zertan oinarritzen da hain baieztapen larria egiteko?

Batetik, Zumaiaiko Udalaren komunikazio plana aurrera eramateko kontratatu berri den Hitzeko E.M.U.ren hautaketa jartzen du ezbaian. Egia da Udalak herriko informazioa lantzen duten kazetariak gonbidatu zituela aukeraketa prozesuan parte hartzeko: El Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa, Gara, EITB, Hitza eta Baleikeko kazetari bana. Soiliak txosten teknikoak baloratze-ko iritzi kualifikatua nahi zuten. Balorazio hartan bi enpresa nabarmendu ziren, pareko puntuazioarekin. Gero, Udala izan zen, hainbat faktore kontuan hartuta, azken erabakia hartu zuena. Hori da egia. EAJk iruzurra iradokitzeke egiten duen ariketa, berriz, oso

maltzurra iruditu zaigu. Zer esan nahi du EAJk, kontratazio mahaian parte hartu zuten kazetariak ez zutela zintzoki jokatu lehiaketa publiko baten esleipenean? Salaketa horren larritasunak ez du neurrik.

Bestalde, Hitzak eta Baleikek Udalaren dirulaguntza jasotzen dutela dio testuak. Egia biribila. Eta Jaurlaritzarena. Eta Aldundiarena. Udalarena, bai orain eta bai lehen, EAJ agintean zegoenean. Beraz, EAJk bere idatzian maltzurkeriaz erabiltzen duen arrazoibideari segita, zer esango dugu, lehen Zumaiaiko EAJk dirulaguntza ematen ziela Baleikeri eta Hitzari haiek kontrolpean edukitzeko? Edo gaizki iruditzen ote zaio Zumaiaiko EAJri euskarazko komunikabideak diruz laguntzea? Ez genuke halakorik pentsatu nahi.

Zumaian gertatzen denaren berri ematea da herriko informazioa lantzen dugunon zeregina, bakoitzak bere ikuspegitik, baina beti zintzotasunetik abiatuta. Tamalgarria iruditu zaigu EAJren idatzia, zalantzan jarri duelako gure sinesgarritasuna. Gure zeregina, zorionez, xumeagoa da: herritarrak informatzea.

Sinatzaileak: Juan Luis Romatet (El Diario Vasco berriemailea), Ainara Lozano (Noticias de Gipuzkoako berriemailea), Gorka Zabaleta (Baleikeko zuzendaria), Amaia Mendizabal (Urola Kostako Hitzako zuzendaria) eta Arritxu Iribar (EITBko kazetaria).

agenda *apirila abril / maiatza mayo*



Ikastaroak

- KZGUNEA. Ikastaro eta mintegiak: Oinarrizkoa, Enplegua lortu, Sinadura elektronikoa, Adobe Acrobat Reader... informazioa: 943-862866.
- GIZARTE ZERBITZUEK ANTOLATUTA (943-862200)
- SEXUALITATEAK ETA KOMUNIKAZIOA: 15-25 urte bitarteko neska-mutilentzat. Apirilak 24,29 eta martxoak 6,13,20 eta 27an. 12 ordu. 5 euro.
- AUTODEFENTSA: MAIATZAK 30, ETA EKAINAK 6 ETA 13. 12 ORDU. Matrikula: 10 euro.

Deialdiak:

- ARGAZKI AUKERAKETA 2009: Argitalpenetarako argazkiak lortzeko deialdia. Lanak aurkezteko epea, maiatzaren 6a. Oinarririk kultur etxean eta turismo bulegoan.
- ZUMAIAKO ARGAZKI LEHIAKETA. Zuri-beltzean. Gaia: "Oinak oinetakoak". Lanak aurkezteko epea, ekainaren 23a. Informazioa kultur etxean (943861056)

Txangoak

- Apirilak 4: Vivanco, Ardoaren Kulturaren Museoa (Logroño)
Museo de la cultura del Vino, Vivanco (Logroño)
- Maiatza 16-17: Astebukaera Salamankan. Fin de semana en Salamanca.

Bisita gidatuak:

- Zetazeoak ikusteko ibilaldia itsasoan/ Avistamiento de cetáceos.
- Apirilak 4 eta Maiatzak 2**
- Irteera geologikoa eta txalupan zeharkaldia/ Salida geológica y recorrido en barco: Apirilak: 4, 11, 18, 25; Maiatzak: 2, 9, 23, 30
 - Flyscharen trekkinga/ trekking del Flysch: apirilak: 5 eta 19; maiatzak: 10 eta 24
 - Zumaia-Deba-Zumaia ibilbidea txalupan/ Barco Zumaia-Deba-Zumaia. Apirilak: 5, 10 eta 19; maiatzak: 1, 3, 17 eta 31.
 - Zuloaga museoa eta Zumaia: Apirilak: 10, Maiatzak: 1
 - Hegaztiak ikusteko ibilaldia oinez/ Avistamiento de aves desde tierra. Maiatza: 16

Apirila / Abril

Osteguna, 16 Jueves

22:15ean zine foruma: *La clase*
Cine forum: *La clase*

Larunbata, 18 Sabado

18:30ean Aita Marin, POXPOLo ETA MOKOLO, Gora Mariatxi!
Actuación de los payasos en Aita Mari POXPOLo ETA MOKOLO, Gora Mariatxi!

Osteguna, 23 Jueves

17:30ean haur liburutegian, ipuin kontaketa APIKA taldearekin.
Recital de cuentos en la biblioteca infantil, de la mano de APIKA.

Ostirala, 24 Viernes

17:00etan, GAZTEGUNE kalera festa.
Fiesta en la calle GAZTEGUNE.

Osteguna, 30 Jueves

22:15ean zine foruma, *My blueberry nights*
Cine forum: *My blueberry nights*

Maiatza / Mayo

Ostirala, 8 Viernes

22:30ean Maria eta Jose aretoan, BENITO LERTXUNDIren kontzertua
Concierto de BENITO LERTXUNDI

Osteguna, 14 Jueves

22:15ean zine foruma, *Gomorra*
Cine forum: *Gomorra*

Ostirala, 15 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia TXALOREn eskutik, *Ahuntza nor den Sylvia*.
Teatro "Ahuntza nor den Sylvia" de la mano de TXALO.

Larunbata, 16 Sabado

18:30ean Zumaia Musika Bandaren kontzertu didaktikoa.
Concierto didactico de la Banda Municipal de Zumaia.

Igandea, 17 Domingo

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia, *Kanpanilla eta Peter Panen itzala*.
Teatro infantil, "Kanpanilla eta Peter Panen itzala".

Ostirala, 22 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia, TXANOBARRAGORRO
Teatro de TXANOBARRAGORRO

Larunbata, 23 Sabado

Gaztegunekoak karting-era joango dira.
Salida al karting desde el GAZTEGUNE.

Osteguna, 14 Jueves

22:15ean zine foruma, *Buscando un beso a medianoche*.
Cine forum: *Buscando un beso a medianoche.*

Otsailaren 20tik 23ra

Estazio Auzoan, SAN PANKRAZIO JAIK.
Fiesta de SAN PANCRACI en el barrio de la estación.

